

Ermuko Gorabide elkarteak

10 urte baino
gehiago
daramatzate
urritasun
mentala duten
pertsonekin
Ermuan lanean.
Gaur egun 30
bazkide ditu.



-Zein urtetan sortu zen taldea?
1993an.

-Zenbat kide zarete?

Ermuan, urritasun mentala duten 60-70 lagun inguru daude, baina Gorabiden 30 bazkide ditugu. Bazkideek urteko kuota ordaintzen dute eta Gorabidek eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko eskubidea dute. Bazkide izateko derrigorrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Hilean behin elkartzen gara, hileko lehenengo astelehenean. Batzordean gauden 7 lagun biltzen gara eta urtean behin bazkide guztien batzarra egiten dugu.

-Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gorabide elkarteak urritasun inte-

lektuala duten pertsonen gizarteratzea bultzaten du, gizartean normaltasun osoz bizi daitezen. Era berean, gure helburua, urritasun intelektuala duten pertsonen eragiten dien alor juridikoan egunean egotea da.

-Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Herri mailan, astelehenetan Lobianon dantza eskaintzen dugu ordubetez. Astearteetan kiroldegian gimnasia egiteko aukera dago ordubetez. Asteazkenetan, Gorabide elkarteak duen aisialdi zerbitzua eskaintzen da 18:00etatik 20:00etara Aldapako egoitzan. Ostegunetan 18:30etatik 19:30etara gimnasia kiroldegian, ostiraletan 18:00etatik 20:00etara

aisialdi zerbitzua Aldapan eta larunbatetan, 16:00etatik 20:00etara aisialdi zerbitzua. Gorabideri dagokion aisialdi zerbitzurako boluntarioak behar ditugu, beren denbora eskaintzeko prest dagoen jende konprometitua.

-Horrez gain, txangoak ere egiten dituzue?

3 izaten dira urtean: bata hiruzpau eguneko eta ekainean egiten duguna. Beste bat, irailean egiten duguna, egun batekoa eta gabonetan Bilboko PIN-era joaten gara.

-Zuekin harremanetan jartzeko?

Bilboko egoitzara deitu behar da: Poza Lizentziatua 14, 2. 48011 BILBO. Telefonoa: 94 443 12 10. Faxa: 94 421 93 84. E-maila: tiempolibre@gorabide.com.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOEGIA

CERYECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna